



KOLON ETA ONDESTEKO EBAKUNTZA AURREKO PRESTAKETA CITRAFLEET® HARTUZ TEM/TAMIS EBAKUNTZA OSPITALERATZEN ZAITUZTEN EGUNEAN BERTAN

1.-KOLONEKO PRESTAKUNTZA MEKANIKOA

ebakuntza kirurgikoaren aurreko eguneko 16:00etan HASI BEHARKO DUZU PRESTAKETA HARTZEN.

Une horretatik aurrera EZIN izango duzu elikagai solidorik hartu ospitaleratu arte.

16:00etan: CITRAFLEET®-EN 1. DOSIA: diluitu lehenengo zorroa 500 ml uretan; edan disoluzio hori, eta, ondoren, edan gutxienez 1,5 litro ur edo LIKIDO ARGI BAIMENDUAK (URA, INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

20:00etan: CITRAFLEET®-EN 2. DOSIA: diluitu bigarrena 500 ml-ko uretan; edan disoluzio hori, eta, ondoren, edan gutxienez 1,5 litro ur edo LIKIDO ARGI BAIMENDUAK (URA, INFUSIO AZUKREDUNAK ETA KOLOREZTATU GABEKO EDARI ISOTONIKOAK).

EZIN DUZU ALKOHOLDUN EDARIRIK HARTU, EZTA ZUKURIK EDO ESNERIK DUEN EDARIRIK ERE.

Ospitaleratu baino 2 ordu lehenago: ezinbestekoa da **ezer ez** hartzea (ezta urik ere).

2.-CLEXANE 40 MG HARTZEA, 20:00ETAN, EBAKUNTZA KIRURGIKOAREN AURREKO EGUNEAN (BEHARREZKOA BADA)